

Kaixo, Nerdson! Erabil ditzaket zure ilustrazioak nire blogean?

Askotan galdetzen didate hori. Bai, erabil ditzakezu eta ez duzu zertan baimena eskatu. Badakizu zergatik?

Nire ilustrazioetan azaltzen den irudi hau da arrazoa: Creative Commons lizentzia dute.

Bueno, norbaiti eskatzea dauka erantzun dezala bere orde...

Edo aldez aurretik esan dezake denek baimena dutela, ez?

Orduan, lizentziak dio lanak ez duela jaberik? Eta artista ez al da gosez hilko?

Lizentzia honek ez du esanahi zure egile eskubideei uko egiten diezunik. Egileak erabaki dezake zein baimen mota ematen dion bere lanari; horrela, bere lanaren zabalkundea errazten du interneten laguntzaz.

Zure lan bati Creative Commons lizentzia emanez, edonork erabil dezan baimentzen duzu. Hori bai, baldintza batekin:

### AUTOREA AIPATU BEHAR DUZU



Argazkia: Bozo Esteka ipini!!

Creative Commons lizentzia oso malgua da. Egileek hauta dezakete euren beharretara hobekien egokitzen den lizentzia: murriztuena edo irekiena. Ondorengoak dira aukerak:



#### Attribution (BY)

Aitortu  
Lizentzia guztietan azaltzen da hau. Egilea aipatu behar duzu.



#### Non-commercial use (NC)

Aitortu-EzKomertziala  
Ezin duzu komertzialki (irabaziak lortzeko) erabili.



#### No derivative works (ND)

Aitortu-LanEratorririkGabe  
Lana erabil daiteke, baina moldatu gabe.



#### Share alike with the same license (SA) (share-alike)

Aitortu-PartekatuBerdin  
Lana molda edo alda daiteke, baina lizentzia berarekin partekatu behar da.

#### Adibidez:

Nire argazki bat libre izan dadin nahi dut. Ez dut inork komertzialki erabiltzea nahi eta lan eratorriak lizentzia berarekin ipintzea nahi dut. Zein lizentzia erabil dezaket?

#### Erantzuna:

### CC-BY-NC-SA



Joan hona: [HTTP://CREATIVECOMMONS.ORG/](http://creativecommons.org/)

Nire ilustrazioak CC-BY lizentziarekin ipintzen ditut; beraz, nahi duzuen egin dezakezue haiekin. Baldintza bakarra ni aipatzea da. Ez zait baimenik eskatu behar, baimena emanda baitago.

Era berean, nahi dudanean (nire egile eskubideak eskatzen badizkirate edo), ipinitako murrizketak baliogabetu ditzaket.

Adibidez, zure lana modu okerrean erabiltzen badute?

Bai, hori da!

Partekatzeko asmoz argitaratu ohi dut nire lana interneten. Jende askok egiten du hori; beraz, lizentzia libre eta ireki bat ipintzeak "ofizialki" zure nahia adierazteaz gain, beharrezkoak ez diren tramiteak saihesten ditu. Borondate kontua da!

Mila esker! Orain garbi daukat! Bide batez, zure donuts paketea zure lagunekin partekatu dut. CC-BY lizentzia izango zuen, ezta?

Ai, amaaa!!

Zure kasuan, informazio hori oinaldean dago, ezta?

